



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2026ko LEHENENGO LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2026ko lehenengo lauhilekoan elikagaiei buruzko 1564 jakinarazpen izan dira. Horietatik 413 alertak izan dira (%26,5), 684 informazio-jakinarezpenak (%43,5) eta 467 mugan egin diren ukapenak (%30).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **37a Turkiakoak** dira eta %**16ak Txinakoak**. Europaren kasuan, banatuago daude herrialdeen artean. Jakinarazpen gehien eragin dituzten herrialdeak **Polonia (% 15) eta Frantzia, Espainia eta Herbehereak (bakoitzak % 10,5arekin)** izan dira. Afrikan, **Egipto** nabarmendu da kontinenteko jakinarazpen guztien ia erdia (% 44), eta Amerikaren kasuan, **EEBBek** jakinarazpenen % **29,5a** dituzte, eta **Argentinak % 20a**.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2026ko lehengo lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1564 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Kutsadura biologikoa	% 21
Hondakinak	% 20
Toxina naturalak	% 19
Iruzurrak	% 18,5
Kutsadura kimikoa	% 9
Kutsadura fisikoa	% 5,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 4
Metal astunak	% 3



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Toxina naturalei dagokienez, kasuen % 47,5ean, **AFLATOXINEK** eragin dute kutsadura, eta **KAKAHUETE** da horien % 36 eragiten duen produktua, eta kasuen % 63ak **ARGENTINATIK** dator. Bestalde, **OKRATOXINEK** %32,5a eragin dute, **PIKUAK** tarteko produktu gisa hartuta % 87,5ean, eta **TURKIA** izan da jatorria kasuen % 100ean.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %59,5a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 83an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %48ko kasuetan, %37ko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarrik.

Beste salmonelei dagokienez, %15a *Salmonella enteritidis* dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen %90a eta %50eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %2a *Salmonella typhimurium-i*, nabarmendu beharreko produkturik gabe

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes* jakinarazpenen %18a eragin ditu. **HARAGI-ERATORRIAK** inplikatura daude, % 28an eta haien jatorria **Europa** da, %100ean.

Fitosanitarioen eta sendagaien hondakinei dagokienez, sendagaien hondakinen jakinarazpenak anekdotikoak izan dira, eta **FITOSANITARIOENAK**, berriz, % 95a. **Hondakin anitzeko produktuak** (lagin berean hondakin desberdinak dituztenak) kasuen % 45,5 izan dira, eta horien artean **piperrak** eta **fruta exotikoak**. Gainera, nabarmentzekoak dira **KLORPIRIFOS**, European debekatutako plagizida, eta **ACETAMIPRID**, beste fitosanitario batzuen aldean. Ia guztiek **hirugarren herrialdeak** dituzte sorburu.

Sarearen bidez jakinarazitako iruzur guztietatik, % 41a hainbat elikagaitan **debekatutako substantziengatik** edo baimendu gabeko osagai berriengatik izan dira, eta **ELIKAGAIEN-OSAGARRIAK** nabarmendu behar dira kasuen % 60arekin, horien % 18 **EEBB**etatik etorritakoak baitira. Bigarren, % 26,5arekin, **ETIKETAN ALERGENORIK EZ ADIERAZTEARI** dagokio.

